

Jarduaren laburpena 2019

B

cristobalbalenciagamuseoa.com

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

5	CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA
7	AURKEZPENA
11	PUBLIKOAK
15	ERAKUSKETAK
23	HEZKUNTZA
37	KULTUR PROGRAMAZIOA
40	KOMUNIKAZIOA
43	INFORMAZIO EKONOMIKOA

Cristóbal Balenciaga Fundazioa 1999an sortu zen, Hubert de Givenchy lehandakaritzapean eta F-91 zenbakiarekin erregistratu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan. Haren xedea da Cristóbal Balenciaga Eizaguirre jostun-sortzaile getariarraren pertsonak eta nortasunak modan, goi-mailako jostuntzan eta jantzien diseinuan izan duen garrantzia sustatzea, zabaltzea eta indartzea, artearen parte garrantzitsua baita. Hauek dira Fundazioaren

Patronatua osatzen duten instituzio publikoak: Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Kultura Ministerioa eta Getariako Udala, dira, beraz, Sekotore publikoen Fundazioa da.

Patronatua, gainera, eremu pribatuko Moda, Kultura eta Balenciagaren loturak dituzten beste kide batzuek osatzen dute,.

Fundazioaren ohorezko presidenteak: Espainiako errege-erreginak dira

Aipatutako helburuak lortzeko, Fundazioaren tresna nagusia Cristóbal Balenciaga Museoa da. Fundazioak zuzenean kudeatzen du, eta 2011ko ekainaren 6an ireki zituen ateak, Getarian.



2011ko ekainaren 7an inauguratu zen Cristóbal Balenciaga Museoa, eta bilduma paregabea zaintzen du, Balenciagaren bizitza eta obra, modaren eta diseinuaren historian izan zuen garrantzia, eta bere ondarearen garaikidetasuna ezagutarazteko.

Bildumaren handitasuna –4.500 pieza baino gehiago daude, jantzien, osagarrien eta dokumentuen artean, eta oraindik ere handituz doa mailegu eta dohaintzei esker– eta hedadura formal eta kronologikoa direla- eta –jostunaren modelo zaharrenak eta etxeak itxi ondoren 1972an hil arteko erretiro aktiboko garaian egin zituen azken sorkuntzak daude–, bilduma hau da nazioarteko gaur egungo bildumarik osatu, koherente eta interesgarriena.

2022ra arte luzatuko den ziklo estrategiko berrian, 2019 garrantzitsua da datozen urteotan argia ikusiko duten proiektu handien prestaketarako: 2020an Balenciagaren jaiotzaren 125. urteurrena beteko da, 2021ean museoaren X. urteurrena ospatuko dugu eta 2022an 50 urte beteko dira Balenciaga hil zenetik. Ekitaldi horiek lagunduko dute Cristóbal Balenciaga museoaren erreferentziazko posizioa modu argian ezartzen.

Egoera horren ondorioz, lan handia egin da erakundean, eta lan horretan garrantzi berezia izan dute proiektu nagusi hauek:

1. Katalogo arrazoituaren lehen liburukia idazteko lanekin aurrera jarraitzea, 2021ean argitaratzeko asmoz.
2. Moda-eskolekin batera proiektu berri bat diseinatzea eta abiaraztea, 2017-2018an arrakastaz eginikoan oinarrituta baina Europa, Asia eta Amerikako erakunde prestigiodun gehiago gehituta.
3. Ikerketa eta sorkuntzarako dokumentazio-zentro berria diseinatu eta prestatzea eta zentro horrek garatu beharko lukeen programazioa.
4. 2020an egitekoa den Cristóbal Balenciagari buruzko Nazioarteko I. Kongresurako ekarpenen eskaera-prozesua (*call for papers*) diseinatzea eta abian jartzea.

Emaitzak berehala eman dituen lanari dagokionez, seigarren areto bat antolatu da martxoan martxan jarri zen «Moda eta ondarea. Testuinguruak» erakusketa iraunkor berriaren programaren barruan. Udaberriko hitzordu handia izan da, ezarritako esparru estrategikoa betez, eta ekitaldiaren amaierara arte luzatuko da. Edukiari eta museografiari dagokionez guztiz aitzindaria den komisariotza-serie horren bigarren kapitulu honetan Londreseko Arte Unibertsitateko Modako Komisariotza

Zentroaren lankidetzaz izan dugu, Judith Clark museologoaren bidez. Zentroaren zuzendarikidea da Amy de la Haye ikertzailearekin batera, eta jardunaldi akademiko bat izan dugu harekin museoa.

Lan eta programazio horiei batu behar zaie Aldamar jauregian udan eta udazkenean antolatu diren aldi baterako bi erakusketa. Askotariko gaiak jorratu dituzte eta, lehen aldiz, kanpoko babesak izan dute. Bestalde, hezkuntza-programa ere aipatu behar da, berriz ere antolatu baitira udako ikastaroak. Horietan modaren etikari buruzko hausnarketaren alorreko erronkak eta aurrerabideak landu ziren, eta erdietsitako ondorioak Estudios Vascos aldizkarian argitaratuko dira, artikulatu batean.


Prestakuntzari lotutako alderdi horretan, nabarmentzekoak dira, halaber, goi-mailako jostuntzari buruzko profesionalentzako hiru eskola magistralak eta Kutxa Fundazioarekin eta Donostiako Udaleko ekonomiaren sustapeneko sailarekin elkarlanean egindako beste prestakuntza-ekintza batzuk, Gipuzkoako Modaren Klusterra ekimenaren bidez.

Museoko jardunean eragina izan du aurten, gainera, Thyssen museoa antolatutako *Balenciaga y la pintura española* erakusketarako utzitako 28 piezaren maileguak. Ikusgarritasun handia lortu du hala publikoari (154.234 bisitari) nola komunikabideei dagokienez, Espainian zein kanpoan.

Barneko lanei dagokienez, definizio estrategiko eta operatiboko jarduketak gauzatu dira marketin digitalaren eta finantzaketa-iturriak dibertsifikatzearen alorrean eredu eta ekintza-plan berri baten bidez, bai eta museoko denda zuzenean kudeatzen hasita, 2019ko urritik aurrera.

Bestalde, inbertsio-beharren plan xehatu bat planteatu da, esparru estrategikoaren arabera munta ekonomikoarekin, eta museoaren zerbitzurako lizitazio kritiko nagusiak kudeatu dira.

Jarduaren laburpena. 2019



	2015	2016	2017	2018	2019	
Urtarrila	1.190	2.082	1.113	2.105	1.731	-18%
Otsaila	1.142	2.104	1.830	201	180	-10%
Martxoa	2.144	3.557	2.214	2.251	3.897	73%
Apirila	3.391	3.481	4.379	6.060	4.824	-20%
Maiatza	4.563	4.663	4.382	6.094	5.558	-9%
Ekaina	3.954	4.068	5.034	5.684	4.219	-26%
Uztaila	5.131	5.205	7.109	5.823	7.175	23%
Abuztua	7.203	4.217	10.198	9.384	9.942	6%
Iraila	3.712	4.704	4.769	4.791	4.436	-7%
Urria	3.421	1.884	5.776	5.432	5.653	4%
Azaroa	1.784	2.274	2.563	3.137	2.765	-12%
Abendua	2.104	2.274	1.983	1.913	3.780	98%
	39.739	45.085	51.350	53.060	54.160	2%

Bisitariaren profila

Bisitariaren profila, sarrerren salmentan eta museoan denboraldi bakoitzean egiten duen publikoaren azterketan bildutako datuen arabera, honako aldagai hauek deskribatzen dute:

Sarrerren salmentan bildutako datuen arabera, bisitarien % 29 gizonak izan ziren, eta gainerako % 71 emakumeak.

Bisitarien % 4 18 urtetik beherakoak ziren. % 13k 19 eta 25 urte artean zituen, % 13k 26 eta 40 artean eta % 41ek 41 eta 55 urte artean. % 19 56 eta 65 urte artekoak ziren, eta 65 urtetik gorakoak % 11.

Sasoika, udan, ikusleak gazteagoak dira (familiak), eta udaberrian eta neguan, 56 urtetik gorakoen kopuruak nabarmen egin du gora.

Bisitarien % 79k goi-mailako ikasketak ditu, eta % 64 beste museo batean egon da azken 3 hilabeteetan (Guggenheim Bilbao, Chillida Leku, San Telmo Museoa edo Bilboko Arte Ederren Museoak, Euskadin, besteak beste).

Jatorriari dagokionez, bisitarien % 55 atzerritarrek dira (iazko antzeko mailetan), eta Frantzia nabarmentzen da batez ere (% 23); EAetik, berriz, % 23, eta Gipuzkoa eta Bizkaia nabarmentzen dira (bakoitzak % 10). Espainiatik datoz bisten % 22. Eragin handiko beste erkidego batzuk Madril, Katalunia, Valentzia edo Nafarroa dira.

Bisitaren erari dagokionez, bikotean (% 50) eta familian (% 18) egindako bisitak nabarmentzen dira, lagunekin osatutako talde informal batean (% 12) edo talde antolatutako batean (% 12); bisita indibiduala ez da hain ohikoa (% 8).

Bisitarien iritziari dagokionez, azken urteetan egin den publikoen azterketak, betiere parametro berberekin, aukera ematen digu balioespen desberdinak alderatzeko:

Balorazioa	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Ordutegia		4,75	4,85	4,65	4,71	4,74
Museoaren erosotasuna		4,28	4,30	4,50	4,42	4,54
Museo barruko seinaleak		4,00	4,40	4,42	4,38	4,57
Informazioa eta aretoen azalpenak		4,27	4,46	4,17	4,43	4,6
Jasotako tratua		4,77	4,81	4,62	4,62	4,57
Sarbideak eta komunikazioak		4,22	3,88	3,98	4,03	4,3
Barne-irisgarritasuna		4,49	4,74	4,65	4,66	4,69
Prezioa		3,68	4,04	3,91	4,00	4,26
Museoaren balorazio orokorra	4,49	4,35	4,61	4,40	4,66	4,63

Gehien baloratutako alderdiak ordutegia, informazioa eta tratua, eraikina eta gutxien baloratutakoak aparkalekua, kanpoko seinaleak eta prezioa izan dira.

Dendari dagokionez, nabarmentzekoa da 4,7/5 aukeraren balorazioa, 4,3/5 jasotako tratua eta bisita gidatueta bereziki baloratzen dira hizkuntzak eta bitartekarien tratua (4,4/5).

Edukiei dagokienez, bereziki bilduma, museografia eta elementu interaktiboak baloratzen dira; aldiz, lan bakoitzari buruzko informazio gehiago falta da, batez ere norena izan zen.


Inkestatuen % 100ek adierazi du bisita gomendatuko lukeela.

Zerbitzuaren kalitateari dagokionez, SIDTEC jardunbide egokien eta kalitate turistikoaren ziurtagiria berretsi da urteko kanpo-ebaluazioaren bidez, eta guztira 0 erreklamazio, 4 kexa eta 11 iradokizun erregistratu dira.

Erabiltzaileak	2018	2019
Haurrak eta gazteak	2.567	1.999
Profesionalak	150	200
Besteak	325	862
Guztira	3.042	3.061

Hezkuntza-programetako jardueren erabiltzaileek, dela modarekiko sentsibilizaziokoek haur, gazte eta familientzat, direla behar bereziak dituzten heldu nahiz publikoentzat, edo profesionalentzako programakoez ere bilakaera positiboa izan dute, eta aurreko ekitaldiarekiko kasu guztietan areagotu egin da, eskola-programarenean izan ezik; beraz, erabiltzaile kopurua mantendu egin da aurreko urtearekiko.

Audientzia digitala	Aldaketa	
Komunitate digitala (RR.SS. jarraitzaileak)	29.800	13%
Irismena (pertsonak)	1.200.000	60%
Harpidedunak newsletter	11.000	30%
YouTube (bistaratzek)	123.550	
Webgunea (bisitak)	89.283	1%



Moda eta ondarea: testuinguruak

2018.03.24—2019.01.27

Martxoaren 1ean *Testuinguruak* erakusketa ireki zen, *Moda eta Ondarea* serie kuratorialeko bigarrena, Igor Uria Bildumen zuzendariak komisariatua eta Judith Clark museologoaren diseinuan kolaboratua.

80 lan propio eta, kasu honetan, kanpo-mailegukoak hautatu dira: Solano Belaustegigoitia bildumatik eta Manchesterreko Museum of the Fine Arts eta Bartzelonako Disseny Museoaren bildumatik ere.

Erakusketak Artistaren obraren inguruko testuinguruetan eragin nahi izan du: testuinguru historikoak, soziokulturalak, artistikoak, enpresakoak, sektorialak eta museistikoak, batez ere argazkigintzaren eta ilustrazioaren lengoaia erabiliz, baina *Moda eta Ondarea* seriea bereizten duen ikuspegi kronologiko eta ebolutiboari eutsiz.

Aipamen berezia merezi du erakusketaren diskurtsoan museoak hedapenetan jotzen duen papera txertatu egin dela. Horretaz gain, 1968an Balenciaga Etxea itxi zela iragarri zenetik 1972an hil zen arte igarotako denbora irudikatzen duen areto berri baten gehitu egin da.

Erakusketarekin, hedapen-koaderno bat argitaratu da, curator-en testuekin, beste ikertzaile batzuen ekarpenekin eta informazio gehigarri eta gidatuarekin deskarga daitekeen aplikazio batekin.

Museografian seriearen hasieran markatutako ildoari jarraitu zaio, *work in progress* filosofiarekin, seriearen iraunkortasuna bermatzen duen aurreko kontzeptuari buruzko edizio gisa.

© Cristóbal Balenciaga Museoa / Idoia Unzueta / Outumuro



Fina estampa


2019.07.03—09.29

La Caixa Fundazioa erakundearen babesarekin, Madrilgo ABC Museoak kanpoko bildumari buruz ekoitzitako erakusketa hartu da, modaren munduko 22 ilustratzaile garaikide ezagunen lana lehen aldiz biltzen duena.


Getariarako, ABC Museoaren bildumaren eta Balenciagaren denboraren ilustrazioen arteko lotura komun batekin planteatu zen erakusketa.

Erakusketa honi esker, museoko publiko ez ohikoa hurbildu ahal izan da museora, eta Cristóbal Balenciagaren irudia eta obra zabaltu.

Aurore de la Morinerie, 2015
Amelie Hegardt, 2016
Rosie McGuinness, 2018



a.t.c.





Belgikako Fabiola, ezkontza soinekoa

2018.03.24—2019.01.27

Obra hori kanpoan utzi zela aprobetxatuz, eta Bildumen zuzendariak egindako ikerketaren ondorioz pieza horri buruzko informazio asko eman zela kontuan hartuta, erakusketa bat sortu zen, lehen aldiz, pieza bakar baten inguruan, eta pieza horren testuinguruan murgiltzea proposatu zen.

Fabiola Belgikakoaren eta Balduino I.aren ezkontza XX. mendeko Erdialdeko hamarkadetako gertaera soziala izan zen. Lehen Errege ezkontza 150 urte baino gehiagotan, belgikarrentzat eta espainiarrentzat. Mundu osoko 80 herrialde baino gehiagotara zuzenean emititzen den lehena da.

Komunikazio-fenomeno horrek garrantzi berezia izan zuen, eta, ezkongaez gain, ezkontza-soinekoa izan zen protagonista, zalantzarik gabe.

Oraingo honetan, aldizkarietako azalak, oroigarrien opariak, zirriborroak, fitxa teknikoak, ikus-entzunezkoak eta behin museoko objektu bihurtutako soinekoaren bizitzaren laginak.



Balenciaga y la pintura española

Museo Nacional Thyssen-Bornemisza, Madril
2019.06.18—09.22

Hasiera batean Prado museoarentzat pentsatutako proiektu hau Thyssen Bornemisza museoaren ekimen batean gauzatu da Eloy Martinez de la Peraren komisarioarekin. Bertan, museoaren zeregina mailegu-hartzaile nagusia izan da, ikusgai dauden ehun-piezetako 28rekin.

2019ko ekainetik irailera bitartean, Eloy Martinez de la Perak Balenciagaren eta pintura espainiarraren maisuen lanak lotuz egindako elkarriketak eta diskurtsoa erakutsi ditu erakusketak.

Hedapenari dagokionez, Thyssen Fundazioak emandako datuak, ekimenaren arrakasta handia bermatzen dutenak, honako hauek dira:

Bisita orokorrak	154.234
MNTBko lagunen bisitak	954
Bisita eta ekitaldi pribatuak	2.177
Protokolo eta patrozinioko bisitak	510
Cristóbal Balenciaga Museoko lagunen bisitak	45
Guztira	157.920

© Cristóbal Balenciaga Museoa / Outumuro







Hezkuntza-programaren barruan, eduki-motak finkatu eta zabaldu egin dira, eta erabiltzaileen kopurua handitu, formatuak etengabe ebaluatu eta berritu dira, eta proposamen berriak sartu dira.

Moda jakintzarako eta sentsibilizaziorako tresna gisa

Eskola Programa

Eskola-programa ikastetxeei zuzendutako programa da, eta hezkuntzaziklo eta LH guztietarako jarduerak proposatzen ditu, integratuta eta eskola-curriculumarekin lotuta.

Helburua da moda kultura-adierazpen gisa sentsibilizatzea eta ulertzea, eta testuinguru horretan irizpideak eta balioak eratzea, eta tresna ehun-unibertso aldagarria erabiltzea eskola-curriculumeko edukiak bideratzeko eta laguntzeko.

Jarduerak 1742 parte-hartzaile izan zituzten ikasturtean, eta balorazioa 8,8/10 izan zen

Familien, haurren eta aisialdiko jardueren programa

Hezkuntza araututik kanpo egiten diren jarduerak osatzen dute, eta askotariko ekimenak dira, izaera ludikoagokoak. Museora bestelako hurbilketa bat eta edukiak asimilatzeke beste metodo bat errazten dute. Jarduerak xede-publikoaren arabera (haurrak, gazteak, helduak, familiak, etab.) eta/edo urte-tarteen arabera (asteburuetako jarduerak, oporraldietakoak, etab.) bana daitezke.

Berrikuntza gisa, bi ildo berri landu dira, familiako ohiko tailerrekin alderatuta.

- Alde batetik, erakusketa eta diskurtso egonkorragoaren testuinguruari esker, familian bisita librea egiteko baliabide eta material espezifikoak eta iraunkorrak sortu dira. Horrela, Casa del Vacío kolektibokin lankidetzan, kit bat egin da, amantal hezigarri moduko bat, familiak museoko harreran eska dezakeena, eta erakusketaren edukia erraz hurbiltzeko elementuak dituen, erakusketari lotutako 5 ariketa sinple garatuz. Baliabide hori, gainera, eskalagarria da, eta parte-hartzaile gehiago dituzten taldeekin erabil daiteke, bai eta aisialdikoekin ere.

- Bestalde, DANTZAZ Konpainia eta Teatro Paraiso-Kunarterekin batera hasitako lankidetzaproiektua burutu zen. Esploratzeko eta hezkuntza-baliabide bat sortzeko prozesu bat, familiei eta haurtzaroari zuzendua, Cristóbal Balenciagaren sormen-unibertsoaren inguruan, eta, zehazkiago, gorputzaren eta janzeraren, mugimenduaren eta gorputz-adierazpenaren artean bizi den lehen espazioaren inguruan. Beraz, 2018ko udazkenean abian jarritako sormen-egoitzen helburua izan zen gorputza ehunen eta arropen bidezko mugimenduarekin erlazionatzeko modua ikertzea eta koreografia bat sortzea, bai eta 1 eta 3 urte bitarteko haurrak dituzten familiekin bitartekatza egiteko baliabide bat sortzea ere. Ondorioz, eduki hori indartu egin da, bai eta jarduera horietan parte hartu dutenen kopurua ere.

Bitartekaritza-programa

Bitartekaritza-lana museoak hezkuntza eta prestakuntza arloan egiten duen garrantzitsuenetako bat da. Bitartekaritza, gainera, bisitariaren esperientzian eragin handia duen funtzioa da, eta oso lotuta dago bisitariaren leialtasunarekin. Atal honetako helburuak honako hauek ziren:

Bitartekaritza- eta harrera-sistema berri bat testatzea museoko bisiten hasieran

Horri dagokionez, sistema hau jarri da martxan: bisitaren hasieran erabiltzaile guztiei harrera egitea eta azalpen pertsonalizatua ematea erakusketetarako sarbidean eta ordainketa-bisita programatuak abian jartzea (orain arte, sarreraren prezioan sartuta zeuden). Bi formatuek bisitari guztien esperientzia orekatzen lagundu dute, eta publikoak oso positiboki baloratu ditu.



Erakusketa-aretoetan integratutako
bitartekaritza-tresnak eta -edukiak
etengabe diseinatzea

2019an, "Balenciaga. Moda eta Ondarea: testuinguruak" izenburupean, bisitaren baliabide eta osagarri gisa, bisitarien parte-hartzea bultzatuko duten hainbat hezkuntza-euskarri prestatu dira.

Alde batetik, erakusketa-ibilbidean bertan ehunen 40 lagin inguru dituen ehun-teka bat txertatu da, lagin horien xehetasunekin osatutako gida deskribatzaile batekin.

Bestalde, App Second Canvas bat diseinatu da lokalean, bildumako pieza enblematiko batean sakontzeko, eta *Study Collection* bertsioan jarri da ikusgai, haren 3Dko miaketarekin, patroiaren deskribapenarekin eta horien mihiztadurarekin infografia bat, eta storytelling bat, haren alderdi tekniko esanguratsuenak nabarmenduz, mikrokapsuletan eta barne-xehetasunetan oinarrituta.

Era berean, piezen erreplika estalgarriak sortu dira, ezaugarri formalak direla eta, modu horretan probatu, aztertu eta ulertu ahal izateko

Azkenik, bigarren App Second Canvas bat egin da, laginean planteatutako edukiak esploratzen eta sakontzen laguntzen duten informazio eta material gehigarriarekin deskarga daitekeena.

Beste arte-lengoaia eta -adierazpen batzuk erabiltzea
modarekin lotutako edukiak bideratzeko

Helburu horri dagokionez, bitartekaritza-programan dantzaren bidez proiektu berri bat landu da, bisitetara laguntzeko eta gidatzeko.

Prototipo hori bitartekaritzako, modako eta dantzako profesionalekin batera egindako saioetan aztertu da, eta 2019. urtearen amaieran jarri da praktikan.

Moda integratuzko tresna gisa

Gaitasun anitzeko publikoentzat

Duela urte batzuetatik hona, Kutxa Fundazioaren laguntza izan du Museoak Museoko publikoa anitzak integratuz lanean, ikusgarritasuna emanez eta museoaren barruan dituzten gaitasunei egokitutako zerbitzua eskainiz.

Programa honetan txertatutako hezkuntza-ildoek eta -jarduerak helburu hauek dituzte, besteak beste:

- Museoa eta haren edukia ahalik eta kolektibo gehienei eta, batez ere, dinamika espezifikoak behar izateagatik erakusketa- eta hezkuntza-proposamenetarako sarbidea zaila dutenei erantzutea eta eskuragarri jartzea.

- Hainbat kolektibo eta/edo komunitarekin harreman eta lotura egonkorak ezartzea, haien ezaugarriak eta beharrak ezagutzeko eta, horrela, horiei erantzun egokia eman ahal izateko, ekintza integratzaileak definituz eta bakoitzarentzako programa espezifikoak sortuz.
- Kultura-ondarea, eta, zehazki, Cristóbal Balenciagaren moda eta sorkuntzak erabiltzea, kolektiboen gaitasunak sustatzeko tresna gisa, eta ezagutza pertsonal handiagoa izateko.

Dibertsitate funtzional fisiko-motorra

Murgil zaitez! Museora bisita eta bainu egokitua hondartzan. Museoak, Gurutze Gorriaren laguntzarekin, plan paregabea proposatzen du mugikortasun mugatua duten pertsonentzat. Esperientzia horretan, bisita gidatu bat egingo dute, eta, horren ondoren, bainua hartuko dute, lagundurik, Getariako Malkorbe hondartza politean –ur lasaietako hondartza–. Bisita formula hau udako hilabeteetan egiten da (ekaineko bigarren hamabostaldia, uztaila, abuztua eta iraileko lehen hamabostaldia).

Museoak, gainera, 25 makila-aulki jarri zituen mugitzeko zailtasunak dituzten bisitarien eskura, aurreko urtean erositako erakusketa-ibilbidean zehar.

Dibertsitate funtzional bisuala

Balenciaga eskura. Bisita eta ukimen bidezko hurbilketa Museoaren funtsak kontserbatu eta erakusteko baldintzen ondorioz, argiztapen maila baxua erabili behar izaten da, eta horrek zaildu egiten du piezak ikustea, batez ere, dibertsitate funtzional bisuala duten pertsonen. Gidatutako ibilbide honekin batera, ukimen bidezko hurbilketa eskaintzen da; oihalen erakusgai baten bitartez, eta ikusgai dauden lanen antzeko erreprodukzio batzuen bidez, hala Balenciagak erabiltzen dituen teknikak nola hark aurkeztutako formen proposamen berritzaileak ulertarazten laguntzen du. 2019an 3 pieza berri gehitu zaizkio ukimen-erreprodukzio eta erreprodukzio jantzigarrien bilduma honi (zaku-lerroa, tunika eta *baby-doll*), eta ehun-teka bat txertatu da erakusketa-ibilbidean bertan.

Era berean, erakusketa eta hizkuntza bakoitzeko testu-koadernotxo bat sortu da, ikuspen baxuari laguntzeko, bisitatiek erabil dezaketen informazio guztia laburbilduta. Era berean, pieza garrantzitsuenen idazketa, itzulpena, lokuzioa eta audiodeskribapenen ezarpena sartu dira.

Entzumenezko dibertsitate funtzionala

Entzumenezko dibertsitate funtzionala duten pertsonen zuzendutako ibilbide lagundu hau zeinu hizkuntzako interprete baten eskutik egiten da. Bisita hau egin dezakete aurrez antolatutako zeinu hizkuntzako hiztun-taldeek, zein hezkuntza departamentuak antolatutako beste edozein jardueratan, esate baterako, eskola-, familia- edo talde-ekimenetan, parte hartzen dutenek.

Aurten, gainera, berrietasun gisa, zeinu-mintzairak ekoizten eta ezartzen hasi da.

© Cristóbal Balenciaga Museoa / Inigo Ibañez



Dibertsitate psikiko eta intelektualak

Bisiten eta tailerraren asmoa da zentzumenezko hurbilketa egokitua egitea; muga psikiko eta intelektualak dituzten pertsonentzako eta eurekin batera lan egiten duten profesionalentzako tresna erabilgarriak izan daitezen lortu nahi da. Modu horretan, museoak eta bertako edukiak euren lanari aplikagarriagoak zaizkien tresnak izateko duten gaitasuna nabarmentzen da. Erakusketan zehar komentatutako ibilbidea osatzeko, tailer praktikoa bat antolatuko da, eta parte-hartzaileen sentsibiltatea eta adierazpen-gaitasuna sustatzea izango du helburu. Bisita motak

Ildo horretan, ariketa honetan DANTZAZ Konpainiarekin elkarlanean diseinatutako jarduera berri bat lantzen hasia planteatu da, familien programako "Dantzharian" sortutako esperientziatik abiatuta.

Egokitutako bisitak, bisita-tailerrak eta hala behar duten kolektiboen eskura jarritako baliabide guztiak doakoak dira.

Formula guztietan 270 pertsonak parte hartu dute, aurreko urtean 134 izan ziren bitartean. Emaiza eraginkorra eta oso ona izan da.

Hezkuntza-programek harrera ona, kalitate handia eta hazteko potentzial handia dituzte, eta erabiltzaileen gogobetetze-maila 9,6/10etik gorakoa da, batez beste.

Emil Bang Hoffmann. Royal Danish Academy of Fine Arts



Belaunaldi berri bati legatua ematea

Balenciagaren eta Balenciagari buruzko ezagutza transmititzeko beharra dago Museoaren hezkuntza-misioaren erdigunean. Helburu horretan oinarritzen da Transmissions programa.

Moda Diseinuan prestigio handiena duten nazioarteko eskoletako irakasle eta ikasleak bildu ditu museoak sustatutako “Transmissions” proiektuak. Eta 2019an partner berriak sartu eta horien irismena handitu du.

Eskola parte-hartzaileak

Central Saint Martins-UAL	Londres, Erresuma Batua
Bilbao Art and Fashion Association	Bilbo, Espainia
KADK The Royal Danish Academy of Fine Arts	Kopenhage, Dinamarka
Iceland Academy of the Arts	Reykjavik, Islandia
Shenkar College of Engineering, Design and Arts	Ramat Gan, Israel
Seika Kyoto University	Kyoto, Japonia
Parsons the New School of Design	New York, Estatu Batuak
Accademia Costume e Moda	Erroma, Italia
ArtEZ University of the Arts	Arhem, Holanda
IED Istituto Europeo di Design	Madril, Espainia
Osaka Bunka Institute of Fashion	Osaka, Japonia
Aalto University-School of Arts, Design and Architecture	Helsinki, Finlandia

Proiektuak helburu hauek ditu, besteak beste

- Cristóbal Balenciagaren ezagutza, balioak, teknika eta sormen-ondarea transmititzea diseinatzaileen belaunaldi gazte bati, bere obraren zuzeneko azterketaren bidez.
- Cristóbal Balenciagaren proposamen iraultzaileak erakustea, bai eta haren esperimentazio eraikitzaile eta formal erabakigarria ere, sortu berri den iturri gisa. Horretarako, emakumeen siluetaren iturriak, joerak eta bilakaera ikertzeko, dokumentatzeko eta aztertzekeo tresnak eta berrikuntza formalean oinarritutako kontzeptuak eta diseinuak garatzeko baliabideak eskuratuko ditu.
- Sormenezko esplorazioan eta siluetak egokitzeko eta interpretatzeko sistemetan sakontzea, formak eta bolumenak, irudiak eta estetikoak, eraikuntzak eta teknikak, materialak eta koloreak irudimenez erabiliz, Cristóbal Balenciagaren lana adibide gisa erabiliz.

- Look bat sortzea esperimentazio-lurralde gisa erabiltzea, siluetak interpretatuz ideiak komunikatzeko gaitasuna inplementatzeko eta garatzeko. Ikasleek sketchbook bat prestatu eta aurkeztu beharko dute inspirazio materialarekin eta jantzi amaitu batekin.
- Eskoletako irakasleek Cristóbal Balenciagaren eta haren balioen inguruan eskaintzen duten edukia kontrolatzea eta aberastea.

Eta, batez ere, Cristóbal Balenciaga Museoa Balenciagaren ondarea kontserbatu, interpretatu eta transmititzeko erreferente gisa kokatzea, mundu osoko 30 irakasle eta 450 ikasle baino gehiagorengan zuzenean eraginez

Edukien ikuspegitik, zalantzarik gabe Cristóbal Balenciagak modaren historiari egindako ekarpen garrantzitsuenetakoa adierazten duen alderdi bat azpimarratu du proiektuak silueta berrien sarrera. Ideia horretatik abiatuta, Getariako sortzailearen obra Museoan bertan aztertuz, ikasleek, gero banako proiektu gisa; horien emaitzak look original baten isladatuko dute. Hainbat proposamenez osatutako aukera bat aurkeztuko da Museoan, 2021ean egingo den erakusketa kolektibo batean.

Cristóbal Balenciagak emandako gaiaren inguruan filosofian, teknikan eta testuinguru biografikoan murgiltzeko prozesuak bost fase izango ditu, jarraian deskribatuko direnak:

I. Fasea. Study visit irakasleentzat. 2019

Lehenengo fasean, proiektuan inplikaturik dauden irakasleei eta transmisoreei soilik zuzendutako bisita bat proposatu du Museoak. Parte hartzen duen eskola bakoitzak 1-2 ordezkari izan beharko ditu topaketa horretan, eskolaren jatorria edozein izanda ere (Europar oinarrituta egon ala ez).

Prestaketa-saio edo -bisita hori behin bakarrik egingo da, bi urteko proiektuaren hasieran; izan ere, bertan landuko diren edukiak berberak izango dira bi ikasturteetan, eta, aldi berean, onartzen da inplikaturik sailak eta/edo irakasleak berberak izango direla bi ikasturteetan, eta ez da beharrezkoa izango topaketa errepikatzea.

Topaketa horrek berebiziko garrantzia du proiektuan parte hartzen duten irakasleak proiektuaren testuinguruan sortutako edukiekin eta baliabideekin ohitzeko, iritziak eta ikuspuntuak trukatzeko, eta sor daitekeen edozein eskari eta galderari erantzuteko. Horregatik guztiagatik, asistentzia nahitaez bete behar da.

II. Fasea. Study visit ikasleentzat. 2020-2021

Parte hartzen duten ikasleak Getariara joango dira, bertako irakasleekin batera, eta erakusketa ezagutzeko eta bildumako piezen aukeraketa esanguratsua aztertzeko aukera izango dute, proiektuaren gaikako esparruarekin bat etorriz. Ildo horretan, europar oinarria duten eskolek beren bisitak nahitaez programatzea eskatu da.

Ikasleekin study trip-ak urtero egingo dira (2020ko urtarrila/2021eko urtarrila), Museoak ezarritako astebetez.

Bisitak egun bat iraungo du nahitaez bete beharreko jarduerekin, edo bi edo hiru egun, baldin eta eskolek programa zabaldu nahi badute ekintza osagarri eta aukerakoekin.

III. Fasea. Ikasleen banakako proiektuaren garapena. 2020-2021

Bi hilabetez, parte hartzen duten ikasleek ikerketa-, esplorazio- eta sorkuntza-proiektu propioa garatu beharko dute. Horretarako, eskola guztiek denbora bera izango dute, eta epe hori amaitzean, proiektuak aztertzeko eta ebaluatzeko behar den materiala aurkeztu beharko dute.

Arlo bakoitzeko irakasleen ikuskaritzapean, ikasleek beren ideiak landu eta garatu beharko dituzte material entregagarrietan. Bildumako pieza bat toilean erreproduzitzeko eskatuko zaie, Cristóbal Balenciagaren obrara hurbiltzeko ariketa gisa, eta look osoa diseinatu eta ekoitzi beharko dute, erabilitako material guztia emanez (toilak, esketxak, memoriak, argazkiak, etab.). Material horiek bi erakundeen artean ebaluatuko dira: eskola eta Museoa.

IV. Fasea. Aurrez hautatutako lanak ebaluatzea, hautatzea eta bidaltzea. 2020-2021

Urte akademiko bakoitzean, irakasleek (lehenik) eta Museoko langileek (ondoren) lanak aukeratuko dituzte, bi urteko prozesuaren amaieran, hau da, 2021ean, egingo den erakusketa kolektiboan erakutsiko diren proiektuak aukeratzeko. Azken aukeraketak arreta berezia jarriko du proiektuak erakusketaren narratiba orokorrean sartzeko moduan, eta, horretarako, Museoak epaimahai baten laguntza izango du. Epaimahai horretako kide izango dira, besteak beste, Museoko zuzendaria, Hezkuntzako arduraduna eta proiektuaren aholkulariak.

V. Fasea. Esposizioa. 2021

Ikasleen proiektuak (gutxi gorabehera 50 outfits), aipatu bezala, Museoan batera egingo den erakusketa batean aurkeztuko dira, eta ekintza horrek ikusgarritasun handia emango die bai prozesuari bai prozesuaren emaitza entregagarri.

Erakusketarekin batera, web-plataforma bat ere badago, erabilitako prozesua deskribatuko duena eta katalogo gisa jardungo duena. Bertan, hautatutako proiektuak sartuko dira.

Erakusketa prentsari aurkeztuko zaio ireki aurretik, eta Museoak proiektuaren inguruko topaketa bat egiteko aukera landuko du, protagonisten parte-hartzearekin.

© Cristóbal Balenciaga Museoa / Inigo Ibañez



Espainiako moda-irakaskuntza espezializatuak

Bestalde, Cristóbal Balenciagaren figura eta obraren azterketan sakontzeko eta, era berean, irakaskuntza espezializatuetaiko ikasleen interesei eta itxaropenei erantzuteko, Espainiako modan espezializatutako irakaskuntza-zentroetarako proiektu bat ezarri zuen museoak 2017/2018 ikasturtean. Lankidetzaprograma horrek museoaren ekintza-esparrua hezkuntza-maila handiagoan eta nazio-hedapen handiagoan zabaldu nahi zuen.

2019an, 190 pertsonak parte hartu dute bisita-modalitate honetan (2018an 68 izan ziren), eta, egindako iruzkinak kontuan hartuta, ondoriozta daiteke planteamendua zentro espezializatuaren interesen arabera dela, bai egiturari dagokionez, bai edukiari dagokionez. 9/10eko batez besteko asebetetze globalak hala erakusten du, eta jarduera praktikoa izan da, hain zuzen ere, hobekien baloratutako alderdietako bat.

Teknifikazioa: Museoa eta modaren profesionalak

Oihalen diseinuko eta estanzazio digitaleko tailerra

